

SAN PELAYO

(ZARAUTZ-EN)

Beti da San Pelayo
Zarauzko eguna
biyotz biyotzetikan
desio deguna;
igaro degu pozik
gozo ta leguna,
Jaunari eskatuaz
aurren osasuna,
zeña dan guziyari
komeni zaiguna.

Goizetik asten dira
soñuak kalia,
esnatuaz daudenak
artian oyian;
gero kanpai soñuak
egoki aidian
ziri-suzko, tipulak
guztiyak batian,
jendia jarri dediñ
pozkida betian.

Inguruko erri ta
baserriyatatik,
jendia Zarautzara
sortzen da gogotik;
erriko ta kanpoko

guztiyak baturik
anaitasun ta pozaz
biyotzak beterik,
Iñurritzara joaten
dirade erritik.

Elizacho ederra
San Pelayokua
meza nagusiyan da
au ikustekua!
Joaten da Zarautzitan
erri-batzarrea,
izaten da soñua
gañera kantua,
eta sermoi euskara
jatorretakua.

Meza nagusi ona
danian bukatzen,
eliz-atayan dira
guztiyak batutzen;
andik prozesiyuan
dirade irtetzen,
musikak aurretikan
diyela laguntzen
modu ontara dira
errira jiratzen.

Inurritzak dadukan
 zelai ederrian,
 festa onak egiñ oi
 dira artsaldian;
 soka-dantza ederrak
 oitura zarrian,
 danboliñ ta musika
 jotzen geyenian,
 zar ta gazte guztiyak
 umore onian.

Alde guztiyetatik
 zelai ederra
 bildultzen da jendia
 bertan jolastera;
 izaten da umore

ona ta algara,
 orla gozaturikan
 illunabarrera
 denak pozez etortzen
 dira Zarautzara.

Gabian plazan oi da
 suzko festa egiñ
 chandatuaz erriko
 soñulariyakiñ;
 batzubez dantzan eta
 bestiak far egiñ
 algara, kanta, poza,
 ta naiko atsegiñ,
 ondo konpondurikan
 denak elkarrekiñ.

JOSÉ ARTOLA.

